

Bero-beroan

Katalana ofizial Ipar Katalunian

IAZKO ABENDUAREN 10EAN onartu zuen Frantziako Ekialdeko Pirinioetako Kontseilu Orokorrak “La Carta del catalá”. Erabaki horren arabera, katalana ofiziala izango da departamendu horretan eta beraz, balio hori izango du Ipar Katalunian. Albistea *Vilaweb* webgune katalanak zabaldu du eta azpimarratu du albiste hori isilean igaro dela orain arte, nahiz eta gertaera historikoa den elkarte eta erakunde katalan askorentzat. Kontseilu Orokorrak hiru eremutan ditu eskuduntzak: errepideak, gizarte zerbitzuak eta eskolak. Sinatutakoaren arabera, Institut d’Estudis Catalans-en (Katalanaren Akademia) esanetara legoke Kontseilua hizkuntza kontuetan. Bestalde, Kontseiluaren lana izango da katalan hizkuntza zein kultura transmititzea, biziraupena ziurtatzea, edonolako esparru publikotan katalana presente izatea eta ikasgela elebidunak irekitzea.

Hainbat elkarte katalanek erabakia garrantzitsua dela aitortu badute ere, Kontseilu Orokorrak etorkizunean

egingo duenaz iritzi desberdinak daude. Horien iritziak irakurri nahi izanez gero jo hona: www.vilaweb.cat

De Rijk-en hilondoko euskal gramatika

RUDOLF P. G. DE RIJK euskalari holandarra 2003an hil zen eta azken urteetan euskara batuaren gramatika didaktiko bat prestatzen ari zen. Bukatu gabe utzi zuenez, Virginia de Rijk-Chan alargunak lanari heldu zion beste hainbaten laguntzari esker, hala nola, Armand De Coene eta Fleur Veraart. Cornell University, Leiden University eta Euskal Herriko Unibertsitateko hizkuntzalariek ere lagundu dute. *Standard Basque: a progressive grammar* du izena liburuak. Azala eta aurkibidea ikusi nahi izanez gero begiratu hemen: www.blogari.net/filoblogia

“Araitz-Beteluko ahotsak” liburua kalean

NAFARROAKO eskualde horretako ahozko tradizioa biltzen du liburuak. Amaia Apaulaza eta Kontxi Arraztio

dira ikerketaren egileak eta zonaldeko zazpi herrietako 59 berriemaileren lekukotasunak jaso dituzte. Euskararen Nafar Institutuak aurkeztu du liburua eta baita DVDa ere.

“Nora” bidaia aldizkariaren lehen zenbakia

EKT Euskarazko Komunikazio taldeak eta Sua argitaletxeak argitaratu berri dute *Nora* bidaia aldizkaria. Imanol Agirre izango da zuzendaria eta hileko lehen igandeetan kalean izango da.

Noain eta Arangurenen D eredua

ASPALDIKO ESKAERA ZEN Nafarroako eremu erdaldunean dauden bi herri horiena: eremu mixtura igaroko ez baditu ere Nafarroako Hezkuntza Sailak, gutxienez hezkuntza publikoan D eredua jartzea. Negozialetak bukatu dira eta Pérez-Nievas kontseilariak esan du datorren ikasturtean D eredua izango dela bai Noainen eta baita Arangurenen ere.

TALAIAN

Osakidetza sendatu

Osakidetza, EAEko osasun sistema, larriki gaixotua dago eta larrialdiko ebakuntza behar du. Garai batean aitzindari eta eredugarri zena, serioki hondatua dago gaur egun. Duela hiru aste, Gurutzetako Larrialdietan lau orduz egon nintzen laguntzera joandako gaixoa artatu zain; eta beste hiru ordu eman nituen beharrezko probak egin bitartean. Adibide bat da eta ugari eskain litezke. Testuinguru horretan medikuen salbu sindikatu guztiak eta langileak euren soldata eta baldintza sozialak hobetzearen aldeko mobilizazioetan dabilta. Ugazabak –Lakuako Gobernuak– negoziaketak hautsi zituen eta dekretu bidez ezarri zituen bere baldintzak. Sindikatu guztiak, medikuenak izan ezik, “dekretazioa” ukatu zuten eta mobilizazio berriak deitu zituzten, baita pasa den urtarrilaren 29ko greba orokorra ere. Guztia negoziaketa eta elkarrizketa eskatzeko.

Ugazabak publizitate orriekin zuritu du bere burua. Horietan erdizkako egiak eta langileen soldatak jakitera eman ditu –manipulatuak, sindikatuen arabera– baina beraien nagusienak ezkutatu, Ibarretxe (100.000 euro urtean) edo Osasun Saileko Inclanena (95.372 euro), esaterako. Langileek mobilizazio berriak iragarri dituzte, baita beste greba orokor bat ere. Osakidetza eta bere erabiltzaileei kalte berriak saihestu behar zaizkie. Eta horretarako ezinbestekoak dira elkarrizketa eta negoziazioa. Ez al du Ibarretxek behin eta berriro esan hitz egin behar dela? Lehendakari jauna, gauzatu ezazu behingoz esandakoa. Eser daitezela interesatuak mahai baten inguruan eta ez dadila inor altxatu Osakidetza behin betiko sendatu arte. Erabiltzaileok eskertuko dugu.

Juan Mari Arregi

Ilegalizazioen aurretik jarduera etena

EAE-ANV ETA EHAK Espainiako hauteskunde orokorretatik at jarriko dituzte seguruenik aste honetan bertan, Baltasar Garzon epaileak hala erabakita. Datorren astelehenerako, hilak 11, hautes zerrendak aurkezteko epea itxiko da eta ordurako dena lotuta utzi behar da. Auzitegi Gorenean fiskaltzak aurkeztutako ilegalizazio prozesuak bide luzeagoa eramango du. Dena aurreikusi bezala doa eta honek berriz ere tentsioa dantzan jarriko du.

Ezaguna ez dena da tentsio giro horrek ekarriko duen panorama politikoa, baina pentsa liteke Batasunaren ilegalizazio prozesuan ezagutu izan den girotik oso desberdina ere ez dela izango, azken finean eremu politiko bakoitzak duen indarra du.

Edozein modutan, bada tentsioa biziki goratu dezakeen eragilea eta hori ETAREN jarduera izan daiteke. Azken hiruzpalau hauteskunde prozesutan, ETAk ez du hildakorik eragin eta elkarrizketa prozesu bat ere indarrean izan da. Oraingoan, negoziazio saio baten porrotaren ondorengo lehen hauteskundeak dira, Espainiakoak –beraz ezker abertzalearentzat ez horren garrantzitsuak– eta bi alderdien jarduera zibikoa debekatuta egongo da. Koktel zinez arriskutsua.

Ilegalizazio prozesuek bereziki ezker abertzalea kaltetzen badute ere, Espainiako sinesgarritasun demokratikoa ere guztiz kolokan jartzen dute. Baina bereziki, euskal gizartea bera zangotrabatu eta kateatzen da, Alderdien Legearen aurka daudenen arteko elkarlan dinamika oztopatu eta tentsio handiak eraginez.

ENAMeko indarrek, Estatuaren kolaboratzailetzat jotzen dituzte Alderdien Legea onartu ez baina hauteskundeetan ezer gertatuko ez balitz bezala parte hartzen duten alderdiak.



L. J. / ARGAZKI PRESS

EAE-ANVh hilaren 3an Bilbon egindako ekitaldi politikoa.

Gainerako alderdien ustez, salaketa eta aurkako jarrera erakustez gain gutxi egin liteke, ENAMen jarrerak berak, berarekiko elkartasunerako tarte txikia uzten duelako, eta bere nahiekin bat eginda, bere eskakizunekin bat egitea bere estrategia babes-tea litzatekeelako.

Egungo konfrontazio dinamikan irtenbiderik ez duen korapiloa bide da ilegalizazioan bakarrik zentratzea eta berau askatzeko, partekatzen diren beste balore eta dinamiketara jotzea beste biderik ez dago, bakoitzak bestearen izaera onartu eta errespetatuta.

Hego Euskal Herrian salbuespen egoera nabarmena jarri du indarrean Estatuak, bereziki ENAMi eragiten diona, baina bide batez gizarte osoari ere bai. Zuzenbideko estatuaren zutoinak gero eta zilegitasun txikiagoa dute euskal gizarteko gero eta herritar kopuru handiagoarentzat. Elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa biziki sustraitua diren baloreak dira, azken bake prozesuan behin eta berriz agerian geratu zen moduan. Eta, hala ere, ezin konfrontazio bortitza eta inposaketaren gupila eten. Kontraesana agerikoa da, eta alderdi politikoek

badute zer hausnartu, baina baita balore horien alde agertu den gizarte zibilak ere, bereziki erabaki eskubidearen aldeko jarrera dutenen artean.

JOSE LUIS RODRIGUEZ ZAPATEROK hauteskundeak irabazten baditu –inkestek hori diote –, EAJrekin akordioa lortzen saiatuko ei da, hori zioen Alberto Suriok joan den igandeko *El Diario Vasco*-n. Helburuaz garbi hitz egiten da, Ibarretxeren kontsultaren plana indargabetzea; akordioaren baldintzez gutxi, baina erabaki eskubidearen inguruko plan-teamendurik ez da aipatzen.

PSOEK hauteskundeak irabazi edo ez, datozen hilabeteetan Eusko Legebiltzarra eta Ibarretxe lehendakaria izango dira tentsio politikoaren gune nagusiak. Batetik, Legebiltzarrak erabaki beharko du zer egin Auzitegi Gorenak EHAK-ko taldea desegitea eskatzen badio. Bestetik, hauteskunde ostan begiak ekainera joko du, kontsultarena aurrera aterako den hala ez ikusteko. Eta tartean Ibarretxe lehendakaria epaitu dezakete. Zigorrena ez dago horren argi, baina Atutxa auziak kargugabetzearen bidea zabalik utzi du.